

MOKO eta KAPMELE



Garberako eta Astoriako zinema aretoei, agur

**Garberako aretoak
hilaren 15an
itxiko dituzte**

Garberako zinema aretoak eta Astoriakoak itxiko ditu SADEk. Lehendabizi, Garberakoak itxiko ditu, otsailaren 15ean. Astoriakoak dagokienez, aurtengo itxiko dituzte, baina enpresak ez du oraindik data jakinarazi.

Azken hamar urteetan, zinema aretoak ugaritu egin dira gurean. Datu bat ho-

rretaz jabetzeko: 1994an 16 pantaila zeuden Donostian eta egun, 56. Tarte honetan, ikusle kopuruak gora egin du, baina ez neurri berean. Leopoldo Arsuaga SADEko kudeatzaileak aldaketa hauek aipatu ditu erabakiaren zergatia azaltzeko. Dena dela, Garberaren kasuan, arrazoi nagusia errenta dela adierazi du: "Duela zortzi

urte hitzartutako errenta gehiegizkoa da gaur egun. Errenta hiri osoko zinema aretoen egoera jakin batera begira zegoen; ezin genuen pentsatu, garai hartan, zinema aretoei zuzendutako lur publikoa egongo zenik, fisikoki eta lege aldetik ezinezkoa zen eta. Ondoren, merkatua eraba distortsionatu zen eta guk desabantailaz lehiatu behar izan dugu. Gaur egun, ezin diogu errentari eutsi".

Esan bezala, SADEk Astoriako aretoak ere itxi nahi ditu aurtengoan. Astoriako eraikinean hotel bat egiteko asmoa du enpresak, 130 logelarekin. Arsuagak, merkaturuan dagoen zailtasuna aipatu duen arren, onartu egin du Astorian bertan edo beste lekuren batean zinema areto txikiagoak zabal litzakeela SADEk. Bestalde, Principe zinemak egungo eskaintzari eutsiko diola jakinarazi du: "Edukina duten filmeei eutsiko diegu. Joan den urtean ikusle igoera izandako zinema bakarra da-eta, %37 hazi zen, hain zuzen", adierazi du Leopoldo Arsuagak. Trueban, berriz, eragina izango du Garberaren itxierak; ez ditu filmak jatorrizko hizkuntzan eskainiko eta zine komertzialera joko du, Arsuagak iragarritakoaren arabera.

